

KONTROL MOZIOA

JOLAS PARKEEN KONPONKETAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko apirilaren 16an Gune Publikoen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko azaroko udaltzarrean, talde honek aurkeztutako honako kontrol mozio hau onartu genuen aho batez:

1.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udaltzaren Donostiako jolas-parkeen azterketa bat egin dezala, alde batetik, parkeetan dauden konponketa eta berrikuntza beharrak detektatzeko eta, bestetik, lehentasun zerrenda bat zehazteko.

2.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udaltzaren lehentasun zerrenda hori egiten duenean, Udaltzaren taldeekin zein auzo elkarteekin parteka dezala.

Lau hilabete igaro ondoren ez genuen azterketa horren berri eta gaia apirileko batzordeetara eramane behar izan genuen berriro ere. Bertan delegatuak adierazi zuen parkeek behar dituzten konponketa eta lanen lehentasun zerrenda eginda zegoela eta zerrenda horren kopia bat helarazi zigun.

Zerrenda horretan Berra Behean (zerrendan “Berria Behea” dioena hori delakoan) kokatutako parkearen egoera “ona” bezala baloratuta azaltzen da eta Harria parkearen kasuan, “hobetzeko obra programatuak” jasotzen da.

Bi kasu hauetan Udaltzaren bete ez dituen hitzak eman ditu behin eta berriro: alde batetik, Berra Behea kaleko parkea Batelarien Plazan kokatzeko proiektua (2017ko apirilean egiteko asmoa zuen Udaltzaren) eta, bestetik, Harria parkea hobetzeko eta estaltzeko proiektua (2017ko martxoan bukatuta egongo zela iragarri zuen Udaltzaren).

Aste honetan jakin dugu iragarritako konponketetan berriro atzerapenak egongo direla. Ezin dugu ulertu zertarako definitzen den lehentasun zerrenda bat, konponketa epeak betetzen ez badira eta bizilagunek ere horrela adierazi dute aste honetan bertan prentsa idatzian.

Halaber, mozioaren 2. zatia bete ote den eta zerrenda auzo elkarteekin konpartitu ote den zalantzak badira, udal taldeekin izan diren atzerapenak ikusita. Edozein kasutan, Ekialdeko Barrutia eratu berriari badagokio bere eremuko lehentasunak aztertzea eta balidatzea edo aldatzea egitea, mantentzen arruntaren baitan.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkeztu du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko jolas parkeetan egin beharreko konponketen kronograma bat zehaztu dezala eta epeak bete ditzala.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko jolas parkeetan 2017an bukatuta egon beharreko obrak behingoz buka ditzala.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jolas parkeen egoera eta egin beharreko konponketen kronograma udal taldeekin eta tokian tokiko auzo elkarteekin konpartitu ditzala eta zerrenda, lehentasunak eta kronograma Ekialdeko Barrutian aztertzeko eta balidatzeko ala aldatzeko kudea dezala.

Donostian, 2018ko uztailaren 13an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia